

“Memoria abandonatu ezin den fabrika da”

Mikel Zabalzaren erailketaren 37. urteurrenean irakurri nuen behin baino gehiagotan esaldi hau: “Memoria abandonatu ezin den fabrika da”. Berehala, torturaren aurkako memoriaren fabrikako langile sentitu nintzen, batzuek ahaztu nahi dituzten piezak egin eta ikustarazteko ahaleginetan borrokan. Antolatu gabe, nolabait bakoitza bere gisara eta laguntza askorik gabe. Bitartean, beste dozenaka fabrika beraien memoria inposatu nahian; eta gure *sindikatuak*? Negoziazioetan?

Fabrika horretako langile gisa, izan dut abandono sentsazioa behin baino gehiagotan. Azkena, *Bi arnas* dokumentalaren inguruan, hain zuzen. Hau da, langileok (torturatuok) eta gure familiak-lagunak saiatzeko gaitasunak fabrika eusten, baina *sindikatuak* (mugimendu politikoa) ez daudela gurekin borroka honetan, edo hori bulego lanetara mugatzen dela. Nola ulertu bestela, aurten, 2022. urtean, Iratxe Sorzabal 24 urteko kartzela zigorrera kondenatzea torturapean egindako deklarazioetan oinarrituta, eta horren kontra egindako salaketak beraren lagun eta familia ingurutik etorri izana? Edo euskal preso politiko ugari arrazoi beragatik espetxean jarraitzea eta grebarik edo-eta kalean zalaparta gehiagorik ez egitea? Amnisiaren, isiltasunaren, hitzarmena sinatu ote dute *sindikatuak* bizikidetzaren izenean? Epaitegi eta bulegoetatik

Euskal herritarrok jasandako tortura sistematikoa eta estrukturala izan bada ere, horren aurkako erantzuna ez da horrelakoa izan. Norbanakoen gain utzi delakoan nago

haratago joateko garaia da, gogoratzeko, berriro ez gertatzeko, aitortzeko eta preso-iei zigorrak eteteko, grebara!

Euskal herritarrok jasandako tortura sistematikoa eta estrukturala izan bada ere, horren aurkako erantzuna ez da horrelakoa izan, salaketa eta torturaren aurkako borroka norbanakoen gain utzi delakoan nago. Norbanako torturatuok ditugun tresnen arabera doa ateratzen tortura kalabozoetako itzaletik kalera, eta horrek ahalegin handia eskatzen du bizirik atera garenontzat. Izan ere, leku-kotasunak emateak bortxatu eta txikitu zituzten gorputz horiek ikusgai jartzea dakar, zauriak irekitzea. Berriro guda zelai bihurtutako gorputz hori politizatzea, memoria kolektiboa egiteko. Estatu terrorismoa jasan eta biziraundakoak garen heinean, legitimitate osoa dugu hartzarekin arduradunak seinatzeko. Aitortza politikoa lortzeko, ordea, borrokan



NEKANE TXAPARTEGI
IHESLARIA ETA KAZETARIA

gurekin behar ditugu mugimendu sozial eta politikoak!

Une honetan, ezinbestekoa iruditzen zait ardura politikoa hartzea memoriaren izenean. Batetik, ezin delako torturaren aurkako borroka instituzioetara mugatu eta delegatu. Batzuentzat badirudi, *Baskongadak* deritzoten horretan, Eusko Jaurlaritzaren txostenean gure izena azaltzearekin memoria egina dugula. Horregatik, Nafarroan egin bezala, torturatuok saretzea, antolatzea eta memoriaren eta aitortzaren bidean subjektu politiko aktibo bihurtzea beharrezkoa deritzot. Berriro errepikatuko ez dela bermatzeko zimenduak jarri behar ditugu eta gertatutakoa idatzi.

Behar horretatik abiatuta, *Bi arnas* dokumentalarekin pikete lanetan gabiltza, beste fabrika eta langileak piztu eta *sindikatuak* desblokeatzeko nahian. Torturaren afera ez delako iraganekoa, egun ere ondorio latzak uzten dituen estatu biolentzia baizik. Erreibindikaziotik egiten da memoria eta ez ahanzturatik. Emakume euskaldun gisa jasandako biolentzia espezifiketatik eman ditugu lekukotasunak, horiek gatazkaren irakurketa kolektiboan txertatzeko. Hortxe gure ekarpena. Orain zeuen txanda. *Bi arnas* milaka arnas bilaka daitezen tortura eta torturatzailen inpunitatearen aurka eta aitortza eta memoria kolektibo feministaren alde! ●

“ Antzinako gari barietate ekologikoak erabiliz, gure ogia goxoagoa da eta ingurumena errespetatzen du. ”

LEIRE BEORLEGI
Okina, IRUNBERRI

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA aurrera goaz!

CPAEN NNPEK
EKOLOGIKOA

ALIMENTOS ECOLÓGICOS DE NAVARRA
eko logikoak
para vivir mejor

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural

cpaen.org
navarraecologica.org